



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
19/01/30

## **Bizkaiko Ahalduen Nagusiak berretsi egin dau Batzar Nagusietan Foru Erakundeak Metroa Galdakaora lotzeko daukan konpromisoa**

Unai Rementeria Bizkaiko Ahalduen Nagusiak, Metroa Galdakao erdialdeagaz eta Ospitaleagaz lotzeko proiektuagaz Foru Erakundeak daukan konpromisoa berretsi dau gaur goizean, Gernikako Batzarretxean egin dan kontroleko osoko saioaren barruan. Adierazpen hori, Josean Elgezabal Podemos Bizkaiaiko batzarkideak aurkeztu dauen itaun baten ostean egin dau. Itaunean, proiektua gauzatzeko aurrekontu arloko bermea eskatzen zan.

Batzarretako ekimena, joan dan urtarrilaren 16an Galdakao erdialderako eta ospitale moltsorako tren sarbidea egiteko Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztu eben proiektua dala eta aurkeztu zan. Podemoseko batzarkideak “hauteskunde aurreko beste iragarki faltsu bat” ete dan eta Aperribai edo Bengoetxea auzoen mobikortasun beharrei erantzungo eteko deutsen galdetu deutso. Ahalduen Nagusiak erantzun deutsonez, “Bizkaiko Foru Aldundian ez gagoz inoiz hauteskundeetan pentsetan, gobernetan eta erabagiak hartzen baino” eta, azaldu dauenez, “ez da proiektu barria, azkenengo urte bietan iragarten ari garana betetea da, Galdakao Metro bitartez lotzea, eta proiektu barriak aurreko planteamentua nabarmen hobetzen dau”. Esan dauenez, “hartuta eta martxan dagon erabagia da, eta fase bitan gauzatuko da. Beharrak 2012ean hasiko dira”.

Gaur goizean egin dan Kontroleko osokoak beste 14 itaun eta ahozko erantzun-eske jaso ditu, oposizinoko talde guztien aldetik. Horreetatik hainbat Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuak eta Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintza Saileko arduradunak erantzun ditue.

Podemos Bizkaia taldeko Josean Elgezabalek, Sestaoko La Naval enpresaren iraunerazpenean, enpleguan eta lan baldintzetan Foru Aldundiak izandako inplikazioaren ganeko ahozko erantzun-eskea aurkeztu dau, Osokoan egon dan beharginen ordezkariaren aurrean. Imanol Pradalesek gogoratuazo dauenez, foru erakundearen lehentasuna enpresa enblematiko horretan “jarduereari ahalik eta arinen berrekitea” da, eta proiektuari bideragarritasuna eta egonkortasuna emoteko “derrigorrezkoa” dala inbertitzaileak agertzea esan dau. Baina, adierazo dauenez, horretarako argitasun eta segurtasun juridiko baldintzak emotek, eta lantalderako EREa akordio barik itxeak eta gatazkea epaiketara eroateak ez dabe ezelango eskaintzarik gauzatzen lagunduko.

Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapen Saileko arduradunak hainbat erantzun-eskeri erantzun behar izan deutse. Alde batetik, Javier Ruiz Talde Popularreko bozeroaleak, San Mamesek Europa mailako final bat jaso ahal izateko neurri politikoaren eta saltoki txikiei emon beharreko laguntzaren ganean galdetu deutso eta Onintze Oleaga EH Bilduko batzarkideak Lemoizko zentral nuklearreko lurren inguruko itauna egin deutso. Pradalesek esan dauenez, PP taldeak futboleko Europa mailako finalaren ganean egin dauen proposamena “denporaz kanpoko” da, eta bat etorri da PPko ordezkariagaz, saltoki txikiek daukiezan gaiztasunen ganean egindako diagnostikoan, horren tonu “apokaliptikoa” baztertu dauen arren. Lemoizko zentral nuklearreko lurrei jagokenez, Aldundiko arduradunak azaldu dauenez, Aldundia udalerriko Udalagaz eta Eusko Jaurlaritzagaz beharrean



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

dabil, baina Administrazioaren aldetik lurak itzultzeko prozesua “oraindino amaitu barik dago”. Adukkultura gunea instaletea, zentral nuklearraren proiektu zaharrerako orain arte aurkeztu dan alternatiba bakarra dala esan dau, eta ez dau onartu EH Bilduk, Iberdrolak euskal administrazioei lurak itzultzearen inguruan egin dauen salaketea. Salaketa horretan esaten zanez, itzulketa horren orde z leku hori berreskuratzearen arduradunak euskal administrazio horreek izan behar dira.

#### Gizarte Ekintza

Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintza Foru Diputatuak, bere aldetik, bere Sailagaz erlazioautako beste lau erantzun-eskeri eta itauni erantzun deutse. Eneritz De Madariaga Podemos Bizkaiaiko batzarkideak, zainketa eredu bardintsua lortzeko neurrien ganeko erantzun-eskea planteau dau. Aldundiko arduraduna ados agertu da neurri handian emakumeek egiten daben behar horren inguruan dagozan ikusgaitasun ezagaz eta balorazino falteagaz, baina Zaintzailearen Estatutua, bardintasunerako bidean “pausu sendoa eta erabakigarria” dala errebindikau dau. Batzarretako talde horretatik bertatik, Josean Elgezabalek Barakaldoko Miranda Fundazinoko erabiltzaileek aurkeztutako kexen inguruan galdetu dau. Foru Diputatuak erantzun deutzenez, foru erakundeak hiru erreklamazino baino ez ditu jaso bere eskumenen arloan.

EH Bilduko Arantza Urkaregik gai biren inguruko itaunak aurkeztu ditu: EAEko Gizarte Zerbitzuen 2016-2019 Plan Estrategikoaren bitarteko ebaluazinoaren, eta zaintzaileek atsedenaldirako daukien eskubidearen ganean. Sánchez Roblesek erantzun deutzanez, lehenengo kasuan, bere Sailaren lehenasuna “personei arrete a eskeintzea da, eskaria dinamikoa eta aldakorra dalako, arlo horretan dagozan beharren ganeko proiektzino teorikoetatik kanpo”. Eta bigarren itaunari jagokonez, denpora gitxi barru egingo dan Gobernu Kontseju batean, horretarako foru dekretua onetsiko dala iragarri dau, jagokon aurrekontu partideagaz.

#### Beste esku-hartze batzuk

Gaur goizean Gernikan egin dan Kontroleko Osokoa beste itaun eta erantzun-eske batzuekaz osatu da: Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako Foru Diputatuari Bizkaiko museoetako asko kudeetan dituan Bizkaikoa erakundearen Aholkularitza Kontsejuaren jardueraren ganean egin deutzana; Eduardo Andrés Talde Popularreko batzarkideak Elena Unzueta Iraunkortasun eta Baliabide Naturaleko Foru Diputatuari gun e natural babestuetan kirol probak egiteko dagozan arazo en ganean egindakoa; Neskutz Rodríguez Podemoseko batzarkideak Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuari foru arautegiaren irakurketa errazeko bertsinoak egitearen eta argitaratzearen gain ean egin deutzana; eta baita EH Bilduko Josu Unanuek Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Diputatuari LGTBIQ+ kolektiboko personen eskubideen alde aurrera eroandako ekintzen gan ean egindakoa be.

Eguneko gai zerrendan geratzen ziran beste gai biak Miguel Ángel Gómez Viar Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio Foru Diputatuari egin jakoz. Lehenengoa Jesús Isasi Talde Popularreko batzarkideak egin dau, eta Bizkaibuseko bost emakidadunen berrorekea lortzeko bideratu diran 17,4 milioi euroko partiden kontabilidadedeko justifikazinoaren ganekoa izan da. Foru autobus zerbitzuagaz erlazioaut a, baita be, Zigor Isuskiza Arana EH Bilduko ordezkariak, Bizkaibuseko lanpostuen amortizazino rik egon ete dan galdetu dau, eta Gómez Viarrek ezetz erantzun deutso.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
30/01/2019

## **El Diputado General de Bizkaia reafirma en Juntas Generales el compromiso del ente foral con la conexión del Metro con Galdakao**

El Diputado General de Bizkaia, Unai Rementeria, ha reafirmado esta mañana el compromiso del ente foral con el proyecto que conectará el Metro con el centro de Galdakao y el Hospital, en el transcurso de una sesión plenaria de control celebrada en la Casa de Juntas de Gernika. Esta declaración se ha producido como consecuencia de una interpelación presentada por el apoderado de Podemos Bizkaia, Josean Elgezabal, que demandaba una garantía presupuestaria para la realización del proyecto.

La iniciativa parlamentaria se había presentado como consecuencia del proyecto presentado el pasado 16 de enero por el Gobierno Vasco y la Diputación de Bizkaia para dotar de un acceso ferroviario al centro de Galdakao y al complejo hospitalario, y el juntero de Podemos ha preguntado si el anuncio representa “otro falso anuncio electoral” y si va a dar respuesta a las necesidades de movilidad de barrios como Aperribai o Bengoetxea. El Diputado General ha respondido señalando que “en la Diputación Foral de Bizkaia no estamos en ningún caso pensando en las elecciones, sino gobernando y tomando decisiones”, y ha explicado que “no se trata de un proyecto nuevo, es cumplir lo que llevamos anunciando desde hace dos años, la conexión de Galdakao con el Metro, que mejora sustancialmente el planeamiento anterior”. También ha reafirmado que se trata de “una decisión tomada y en marcha, que se concretará en dos fases, y cuyas obras se iniciarán en 2021”.

El Pleno de Control de esta mañana ha contado con otras 14 interpellaciones y preguntas orales por parte de todos los grupos junteros de la oposición, buena parte de las cuales han sido respondidas por el Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, y por la responsable del Departamento de Acción Social, Isabel Sánchez Robles.

Josean Elgezabal, en representación de Podemos Bizkaia, ha sido el encargado de presentar una pregunta oral sobre la implicación de la Diputación Foral en el mantenimiento del empleo y las condiciones laborales en el astillero La Naval de Sestao, en presencia de una representación de sus trabajadores que ha acudido al Pleno. Imanol Pradales ha recordado que la prioridad del ente foral es “que se reanude lo antes posible la actividad” en esta empresa emblemática, ha señalado que es “imprescindible” que se presenten inversores para dar viabilidad y estabilidad al proyecto, pero ha matizado que para ello se requieren condiciones de claridad y de seguridad jurídica, y que el cierre sin acuerdo del ERE para la plantilla y la posible judicialización del conflicto no van a facilitar que se concrete alguna oferta.

El responsable del Departamento de Promoción Económica ha respondido asimismo a sendas preguntas del portavoz del Grupo Popular, Javier Ruiz, sobre la posible celebración de una final europea de clubes en el estadio de San Mamés y sobre el apoyo al pequeño comercio, y a una interpelación de la apoderada de EH Bildu Onintze Oleaga sobre los terrenos de la central nuclear de Lemoiz. Pradales ha calificado de “extemporánea” la propuesta del PP sobre la final europea de fútbol, y ha compartido con el representante del PP parte de su diagnóstico sobre las dificultades del pequeño comercio, si bien ha rechazado su tono “apocalíptico”. En cuanto a los terrenos de Lemoiz, el responsable foral ha explicado que la Diputación trabaja en conexión con el Ayuntamiento de la



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

localidad y con el Gobierno Vasco, pero que la reversión de los terrenos por parte de la Administración es un “proceso inconcluso”. También ha apuntado que la instalación de un centro de acuicultura es, por el momento, la única opción presentada como posible destino del antiguo proyecto de central nuclear, y ha rechazado la acusación de EH Bildu en torno a la devolución de los terrenos a las administraciones vascas por parte de Iberdrola a cambio de que sean éstas las que deban hacerse cargo de los costes de recuperación de este espacio.

#### Acción Social

Por su parte, la Diputada Foral de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, ha respondido a otras cuatro preguntas e interpelaciones relacionadas con su Departamento. La juntera de Podemos Bizkaia, Eneritz De Madariaga, se ha interesado por las medidas para lograr un modelo de cuidados igualitario. La responsable foral se ha mostrado de acuerdo con la invisibilidad y desvalorización inherentes a esta tarea, en gran medida asumida por mujeres, aunque ha reivindicado el Estatuto de la Persona Cuidadora como “un paso firme y decidido” en el camino hacia la igualdad. Desde el mismo grupo juntero, Josean Elgezabal ha preguntado en torno a las quejas presentadas por personas usuarias de la residencia regentada por Fundación Miranda de Barakaldo, a lo que la Diputada Foral ha respondido que el ente foral solo ha recibido tres reclamaciones en el ámbito de su competencia.

Arantza Urkaregi, de EH Bildu, ha interpelado en torno a dos cuestiones: el Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAV 2016-2019, y el derecho al descanso para las personas cuidadoras. Sánchez Robles ha replicado en el primer caso que la prioridad de su Departamento es “atender a las personas, porque la demanda es dinámica y cambiante, más allá de las proyecciones teóricas sobre necesidades en este terreno”. Y en cuanto al segundo, ha anunciado la aprobación en un próximo Consejo de Gobierno de un decreto foral a tal efecto, dotado de la correspondiente partida presupuestaria.

#### Otras intervenciones

El Pleno de Control celebrado esta mañana en Gernika se ha completado con una interpelación del portavoz del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, a la Diputada Foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, en torno a la actividad del Consejo Asesor de Bizkaikoa, la entidad que gestiona buena parte de los museos de Bizkaia; una pregunta del juntero del Grupo Popular Eduardo Andrés a la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, sobre los problemas para la celebración de pruebas deportivas en espacios naturales protegidos; otra cuestión relativa a la elaboración y publicación de versiones de lectura fácil de la normativa foral, formulada por la apoderada de Podemos Neskutz Rodríguez a la Diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea; así como una cuestión planteada por Josu Unanue, de EH Bildu, para la Diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, en torno a acciones a favor de los derechos de las personas mayores del colectivo LGTBIQ+.

Las dos cuestiones restantes del orden del día han sido formuladas al diputado de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Miguel Gómez Viar. La primera ha corrido a cargo del juntero del Grupo Popular Jesús Isasi, y se ha referido a la justificación contable de las partidas destinadas al reequilibrio de 17,4 millones de euros para las cinco concesionarias Bizkaibus, aprobado en diciembre por el Consejo de Gobierno de la Diputación. También en torno al servicio foral de autobuses, el representante de EH Bildu Zigor Isuskiza Arana, ha preguntado sobre amortizaciones de puestos de trabajo de Bizkaibus, que Gómez Viar ha desmentido.